



EUSKO IKASKUNTZAREN MANUEL LEKUONA SARIA

2024ko deialdia Inprimaki arautua

OHAR GARRANTZITSUA. Norberaren datuak babesteko indarrean dagoen legeria betez, Eusko Ikaskuntzak jakinarazten dizu bilduriko norberaren datuek tratamendu informatizatua izango dutela sariaren helburua kudeatzeko. Orobat, Eusko Ikaskuntzak jakinarazten du sartzeko, zuzentzeko, bertan behera uzteko eta aurka egiteko eskubideak erabili ahal izango dituela fitxategiaren arduradunaren aurrean, dela posta elektronikoaren bidez ei-sev@eusko-ikaskuntza.eus, dela posta arruntaren bidez, erakundearen helbidean: El/SEV Norberaren Datuen Arduraduna, Bergara, 19, 20005 Donostia.

Fermín Leizaola Calvo, etnógrafo, premio M. Lekuona 2017 y Miren Egaña Goya, lingüista, catedrática de lengua y cultura vasca de I.B, socios ambos de Eusko Ikaskuntza desde su reactivación en 1978, tenemos el honor de presentar como candidato al premio Manuel Lekuona 2024 a Juan Mari Beltran Argiñena, musicólogo y especialista en instrumentos de música tradicionales de Euskal Herria.

Juan Mari Beltran natural de Donostia 1947, vivió su niñez y parte de su juventud en Etxarri Aranaz, Nafarroa. Lleva más de 50 años, toda una vida, tocando y enseñando a tocar diversos instrumentos tradicionales como son: txistu, alboka, dulzaina, txalaparta, txanbela...En un momento en el que algunos de estos instrumentos tradicionales estaban a punto de desaparecer, tuvo la genial idea de aprender a tocarlos y a la vez, la de transmitir a las siguientes generaciones esos bienes materiales / inmateriales a punto de desaparecer, pudiendo disfrutar de ellos la sociedad vasca en la actualidad.

Al mismo tiempo, investiga sobre los instrumentos tradicionales, haciendo estudios profundos de ellos, participando en congresos y publicando decenas de artículos. Si bien se centra sobre la música, el folklore y los instrumentos vascos, también lo hace sobre aquellos instrumentos externos a Euskal Herria, siempre comparando y recuperando la tradición.

Desde Zuberoa hasta Bizkaia, colabora con diversos grupos musicales tanto en conciertos, como en grabaciones de discos imprescindibles para la salvaguarda de nuestra cultura y para las generaciones posteriores.

Organiza Euskal Herriko Musika Txokoa en Oiartzun, actualmente llamada SOINUENEA en donde recoge instrumentos de música de Euskal Herria y de fuera del País, una biblioteca especializada en el tema, con libros, partituras, discos y grabaciones de música popular, constituyen un museo único en Euskal Herria

Donostia 2024-09-12

Fermin Leizaola y Miren Egaña Goya



EUSKO IKASKUNTZAREN MANUEL LEKUONA SARIA

3. Proposamenaren arrazoiak

- 3.1. Hautagaia aurkezteko arrazoiak (bere ibilbidea, euskal kulturarekin konpromiso eta ekarpen nagusiak, dibulgazio lanak, eremu akademikotik kanpo duen eskarmentua...)

INPRIMAKO HONEKIN BATERA BIDALI BEHAR DEN DOKUMENTAZIOA:

- ✓ Aurkezpen eskutitza
- ✓ Curriculum Vitae
- ✓ Hautagaiaren argazkia
- ✓ Beste (egon ezker)

Tokia, data eta sinadura

OHAR GARRANTZITSUA. Norberaren datuak babesteko indarrean dagoen legeria betez, Eusko Ikaskuntzak jakinarazten dizu bilduriko norberaren datuek tratamendu informatizatua izango dutela sariaren helburua kudeatzeko. Orobat, Eusko Ikaskuntzak jakinarazten du sartzeko, zuzentzeko, bertan behera uzteko eta aurka egiteko eskubideak erabili ahal izango dituela fitxategiaren arduradunaren aurrean, dela posta elektronikoaren bidez ei-sev@eusko-ikaskuntza.eus, dela posta arruntaren bidez, erakundearen helbidean: El/SEV Norberaren Datuen Arduraduna, Bergara, 19, 20005 Donostia.

JUAN MARI BELTRAN ARGIÑENA



SOINUENEA
Herri Musikaren Txokoa



AURKIBIDEA

1. SARRERA	3
2. J.M BELTRANEN ETA SOINUENEA FUNDAZIOAREN HAUSNARKETA GURE ONDAREAREN AURREAN	4
3. ONDAREA IKERTZEKO METODOLOGIA ZIENTIFIKOA.....	5
3.1. J.M.Beltran Argiñena Bildumaren osaketa	5
3.1.1. Landa laneko materialen bilketa. Grabazioak	5
3.1.3. Landa laneko materialen bilketa. Soinu-tresnak.....	7
3.1.3. Biblioteka, fonoteka eta irudi artxiboa.....	8
3.2. J.M.Beltran Argiñena Bildumaren katalogazioa	10
3.3. J.M.B.A. Bildumaren zabalkundea	11
4. JUAN MARI BELTRAN: SORTZAILE ETA TRANSMISORE	11

JUAN MARI BELTRAN. Soinuenea Fundazioa

1. SARRERA

Juan Mari Beltranen (J.M. Beltran) bizitza erabat lotuta dago herri ondareari eta honen barruan herri musikari. Euskal eremuan erro tradizionaleko musika-ondarearekin lotuta aspaldi honetan izan diren errealitate sendo eta iraunkorrenak ditugu honen ibilbidea eta bere zuzendaritzapean sortutako Herri Musikaren Txokoa Dokumentazio Zentroa lehenik eta honen oinordekoa den Soinuenea Fundazioa ondoren.

J.M Beltranek eta zentro horrek jorratutako eduki eta harreman zabaletan nahiko garbi adierazita daude musika-errealitate honek burututako era guztietako jardueren xedeak.

Lehenik eta behin, ondarearen kontserbazio organologikoaren alderdia azpimarratu beharko litzateke, hau da, J.M. Beltranen ibilbideak eta Soinuenearen sorrerak erabilera tradizionaleko musika-tresnen kontserbaziorako duten garrantzia; ez Gipuzkoa eta Euskal Herrian erabilitakoentzat bakarrik, baita beste geografia-eremu batzuetan agertzen direnentzat ere. Instrumentu-familia desberdinak Europako ingurune kulturalaren barruan kidetzen eta kokatzen laguntzen dute horiek guztiek.

Bigarrenik, instrumentuak musikaren alorrean uztartzen diren modua nabarmenduko genuke, eta, halaber, hauek tradizioan izan dituzten erabilerak. Kontuan hartu beharra dago nolako itxura duen instrumentuak kanpoaldetik, baina baita nola erabiltzen den eta zein kultur ingurunetan gauzatzen den ere. Horrela, ondare immaterialtzat dugun hori guztia izango genuke hain zuzen ere, konturik handienaz kontserbatzen dena J.M Beltranen eta Soinuenea Fundazioaren eskutik.

Azpimarratzea merezi duen hirugarren alderdia, Soinuenea zentroaren sortzaile J.M. Beltranek sustraletako musikaren bizitasuna ezagutzera eramateko egindako ahalegina da, eta horrexegatik, helburu nagusia, ondarearen kontserbazioa ez ezik, musika-balio hauek guztiak gaur egungo gizartean elkarrekin lotuta erakustea da. Horrela, euskal musika-tresnen objektuak gure ondarearen zati gisa berreskuratzeko ahalegin horri musika-tresna horien erabilerarena ere gehitu behar zaio, bai ikuspegi organologikotik eta bai egun izan ditzaketen erabileren ikuspegitik ere. Hori dela eta, errepertorioa ezagutu behar da, iraganeko eta egungo funtzionaltasunaren barruan uztartu beharra dago eta, era berean, interes handiko soinu-agiri berriak sortu behar dira.

Urteetako ibilbidearen asmoa ez da izan museo bat sortzea –ez litzateke lantegi eskasa–, baizik eta nagusiki gure ingurunean garatu diren ahozko tradiziozko musikak bildu, mantendu, erakutsi eta birsortu eta hori xede izango duen erakunde bizi bat sortzea.

Ezin liteke proiektu garrantzitsurik gauzatu, pertsona jakinen bultzada irmorik gabe. Alde horretatik, Soinuenea ez litzateke deus izango, Juan Mari Beltranek izandako ideia, erakutsitako iraunkortasun eta egindako ahalegin pertsonalik gabe.

2. J.M BELTRANEN ETA SOINUENEA FUNDAZIOAREN HAUSNARKETA GURE ONDAREAREN AURREAN

Garai hauetan, Soinueneak herri musikaren ezagutzan, zabalkuntzan eta transmisioan eragile aktibo izan nahi du. Edozein momentutan, mundu eta estilo guzietako musika entzuteko aukera eskura daukagu eta honek, besteak beste, egiten den musika forma berrietan eragin du. Itxura estetikoak gero eta estandarizatu eta "homologatuagoak" dira eta egiten eta entzuten dugun musikan "herri" osagai horrek bere garrantzia galdu du.

Egoera honen aurrean, herri musikak badu oraindik ere modu bizi eta aldakor batean oinarrituz aurrera egiteko ibilbidea eta zergatia. Guk ez dugu onartzen herri musika fenomeno fosildua eta aldagaitza denik, interpretazio bakarra onartzen duena eta sormenari aukerarik ematen ez diona. Musika hau, historiaren momentu batean eta era indibidual batean sortua izan ondoren, ez da era aldagaitz batean errepikatua bakarrik izateko jaio. Herri musika zuzenean belaunaldiz belaunaldi transmititua, sortua eta kontsumitua izan da; talde baten barnean, herritarren artean edo familian bertan. Bere osaketan, neurri handiago edo txikiagoan, belaunaldi bakoitza, eta are gehiago, berau erabili duen gizarteko talde eta pertsona bakoitza parte hartzen joan da.

Mahai inguruan edo tabernetan kantatzen ziren abestiak, jaietan dantzatzen ziren dantza doinuak, sehaskan dagoen haurra lasaitzeko edo motibatzeke erabiltzen ziren abestiak eta orokorrean entzuten eta sortzen zen musika, CD, audio artxibo, disko eta kasete komertzialengatik ordezkatuak izan dira. Gazte eta helduek, ez dute lehen bezala, beren festa eta bileratxoetan abesten eta dantzatzen. Orain, gehienetan, grabatuta dagoen musika entzutera mugatzen dira. Berdina gertatzen da besteak beste, lana, urtaro, uztia, gizarteko gertaera, ohitura, tradizio ezberdin, eta abarrekin lotua dagoen musikarekin.

Beraz, lehen musika pertsona eta gizartearekin zuzen zuzenean zegoen harremanetan. Herriarekin eta honen bizimoduarekin erabat lotua zegoen. Gizarteko parte garrantzitsu bat zen musika. Musikarekin eta musikaren bitartez aldarrikatzen, harremantzen eta mantentzen ziren herriko tradizio eta usadioak. Gaur egun aldiz, gure bizitzan parte hartzen duen musika, gutxi batzuek sortzen duten musikaren kontsumoagatik ordezkatu izan da, bai familian eta baita gizartean ere.

Ondorioz, forma musikalen aniztasuna egunetik egunera txikiagoa da eta komenigarria izango litzateke atzera begiratzea, lehen zegoena eskura dauzkagun baliabide berriekekin ezagutzeko. Argi izan behar dugu ez direla egoera haiek berriro emango, baina, oraindik irauten duena mantentzen eta galdu denaren baliagarriena berreskuratzen saiatzea da J.M Beltranen eta Soinuenearen helburuetako bat.

Azken urteetan, Soinuenea herri kultur transmisioak berekin dakartzan gaur egungo erronkei aurre egiteko baliabideak bilatzen ari da, ohikoak izan diren bideak gaur garatzen ari diren teknologia berriekekin uztartuz.

3. ONDAREA IKERTZEKO METODOLOGIA ZIENTIFIKOA

3.1. J.M.Beltran Argiñena Bildumaren osaketa

Edozein herritako ondarea ezagutzeko eta honekin lanean hasteko egin beharreko lehenengo lanetako bat ondarearen bilketa lana da. 1960. hamarkadan hasi zen J.M. Beltran herri musikaren mota ezberdinetako materiala biltzen. Gaur egun Soinuenea Fundazioak ere bere gidaritzapean lan honekin jarraitzen du.

Herri ondaretik sortutako J.M.B.A. bilduma eta honen ikerketa, zabalkuntza, hedaketa eta kontserbazioa izan dira urte guzti hauetako lanaren oinarria.

Honi buruz J.M. Beltranek hauxe idazten du 2008an Oiartzungo Udalak argitaratutako Mugarri bildumaren 15. alean:

Gure aita zenak, 1961. urte hasieran anai Bixenteri eta niri Euskal Herriko Txistularien elkarteko bazkide inskripzioa oparitu zigun eta horrekin batera elkartearen aldizkariaren harpidetza. Horrekin batera Bilboko Landaluzek egindako danbolin bana oparitu zigun. Hauek dira, soinu-tresna bilduman danbolin hori eta bibliotekan txistulari aldizkariaren zenbaki haiek, H M Txokoaren bildumetako gauza zaharrenak.

Baina, memoriak ez badit engainatzen, 1963. urtean, hamasei urte nituela, hasi nintzen, nire kontura erosten, geroago bildumakoak izango ziren aurreneko disko eta liburuak.

3.1.1. Landa laneko materialen bilketa. Grabazioak

J.M. Beltran gure artean herri musikaren arloan bizirik mantentzen zen ondarea biltzen hasi zen landa laneko grabazioekin. Bertan Euskal Herrian ahoz aho transmititurik herriaren memorian bizi zen herri musika, herri-dantzak, abestiak eta bertso doinutegia zuzen zuzenean bildu zuen eta gaur egun ere horretan dabil.

Argia taldean eta Juan Antonio Urbeltzen eskutik hasi zen J.M. Beltran lan eta abentura harrigarri honetan. Argia Taldean berak hartu zuen bereziki musika biltzeko lanen ardura. Batzuetan musika eta dantzari buruzko informazioa hartzera elkarrekin joaten ziren dantzaria eta musikaria. Besteetan musika jasotzera bera bakarrik joaten zen.

1968ko otsailean Barkoxeko Maskarada egin zenean Argia taldeko batzuk bertara joan ziren. Esperientzia hartaz J.M. Beltranek hauxe idazten du 2008an Oiartzungo Udalak argitaratutako Mugarri bildumaren 15. alean:

Nik ez nuen grabagailu onik eta lankide batek utzitako karretezko zintako Philips handi batekin joan nintzen. Dantzariak dantzen koreografia eta bestelako informazioa hartu zuten eta ni Pierre Copen Mauletarra txirula jole eta Pierre Ager "Garat" tabalariak jotzen zuten guztia grabatzeaz arduratu nintzen. Ilunabarrean, Barkoxeko taberna batean Etxahun Iruri bertsularia bertsoak kantatzen topatu nuen eta hura ere grabatzen hasi nintzen. Zoritxarrez hirugarren bertsoan grabatzeko nuen zinta bakarra bukatu zen eta ezin izan nuen jarraitu.



1968ko otsailean Barkoxeko Maskaradaren grabaketan erabilitako zinta.
(Arg. J. M. Beltran)



Erbetegi-Etxeberriko tolaurrean, 1984.
Ramon Goikoetxea, Juan Mari Beltran eta Asentsio Goikoetxea (Arg. JM Beltran)



Patxi Gorrotxategi. Otzaurteko albokari zegamarra.
Donostia, 1988. (Arg. JM Beltran)

Herrian eta pertsonaren inguruan erabiltzen diren mota eta funtzio askotako herri musikaren gai ezberdinak bildu dira: sehaska kanta, haur eta jolas abestiak, eguberritakoak, inauteritakoak, sanjoanetakoak, tabernetakoak, amodiozkoak,

erlijiosoak, narrazio historikoak, lanaren ingurukoak, festa giroko doinuak, ospakizunetakoak, lanean erabilitakoak... Kontuan hartzekoa da bildu den ondarea immateriala dela eta tradizioaren eramaile batzuen bitartez transmititzen dela; hauetako batzuk beren bizitzan bereganatu dituzten altxorrengatik herri musikaren biltegi apartak dira.

Doinu edo abestiak grabatzeaz gain informatzaileari elkarriketa tipo bat egin izan zaio datu ezberdinak bilduz, bide batez euskalki ezberdinak eta hauen erabilera generazio ezberdinetan jasoaz.

3.1.3. Landa laneko materialen bilketa. Soinu-tresnak

Gaur egun Soinuenea Fundazioak kudeatzen duen J.M.B. Soinu-tresna bilduma ere 1960. hamarkadan hasi zen osatzen.

1500 soinu-tresnatik gora daude Soinueneako bilduman. Hauetatik ia 700 euskal herri musikan erabilitakoak dira eta besteak munduko beste herrialdetakoak. Bildumaren zati bat erakusketan dago ikusgai eta beste zatia biltegian, ordenaturik eta ikertzaileentzat bisitagarri.

Kontuan hartzekoak dira soinu-tresnen bildumarekin erlazio edo zerikusi zuzena duten albokak egiteko Jose Mari eta Leon Bilbao, eta Eugenio Etxebarria Arratiako albokari eta albokagile ospetsuen tailerrak. Hauek tresneriaz eta albokak egiteko materialez osaturik daude.

Bilduma, sailkapen orokorretatik kanpokoak diren bildumaren musika erreproduzitzeko hainbat sistemetako tresneria eta gailuk osatzen dute: fonografoa, pianola, organiloa, polyphonoa...



1965. urte inguruan Añorgan jasotako txistua (Arg. J. M. Beltran)



Pianola erroilua. *Viva Navarra, jota*. H. Larregla


Euskal Herriko soinu-tresnei dagokionez, oso bilduma aberatsa dela esan dezakegu. Gure herrian jo izan diren, eta gaur egun oraindik ere jotzen diren, ia mota guztietako soinu-tresnak daude bertan. Bilduma munduko bost kontinenteetako beste soinu-tresnek osatzen dute.

3.1.3. Biblioteka, fonoteka eta irudi artxiboa


BIBLIOTEKA

Gaur egun fundazioak kudeatzen duen bibliotekaren datu basean 6.518 fitxa daude. Liburu eta aldizkari gehienak musikan espezializatutakoak dira, musika hiztegiak, makina bat lekutako kantutegiak, herri-musikari buruzko aldizkari espezializatuak (Interfolk, Pastel aldizkaria, Nassarre edo Euskal Herriko Txistularien Elkartearen Txistulari aldizkaria) eta abar.

Bildumaren adibide esanguratsu batzuk:



Sallaberryren kantutegiaren bigarren edizioko ale bat . Paris, 1930



Aita Donostiaren Euskel Eres-Sorta. 1921eko lehen edizioa



Txistulari aldizkaria, 1934.

FONOTEKA

2018an fonotekako datu basean guztira hots grabazio argitalpenen 5.666 dokumentu daude katalogatuta. Formatu ezberdinetako dokumentuak dira: disko zaharrak, disko txikiak, LP diskoak, kaseteak eta KDak. Guzti horietatik % 50 euskal musikaren argitalpen edo erreferentziak dira eta besteak munduko bost kontinentetakoak, bereziki Europakoak. Bertan dauzkagu ere euskal diskoetxeetako zigilu ezagunenak eta munduko zenbait zigilu garrantzitsu.

Bildumako ale esanguratsu batzuk:



Regal diskotxeak Agirretxe anaiekin argitaratutako disko bat. Regal; RS 545. Donostia 1.924



Triki-trixa de Azpeitia. Zakabi y Egañazpi. 1963

IRUDI ARTXIBOA

Momentuz 774 dokumentu daude katalogatuta. Bildumako irudi argitalpenak, bereziki VHS eta DVD formatuetan argitaratuta daude. Bertan daude ere momentuz katalogatu ezin izan diren milaka argazki. Besteak beste, honako bideo eta bildumak dauzkagu:



“Euskal Herriko Soinu Tresnak” bideoa. Donostia 1.985



Oiartzungo hotsak. Oiartzungo bildumako 1999ko bideoa.

3.2. J.M.Beltran Argiñena Bildumaren katalogazioa

J.M. Beltranek zuzentzen duen Soinuenearen lan taldeak esperientzia zabala du etnomusikologiarekin zerikusia duten dokumentuen informazioa kudeatzen eta lan honek agertzen duen zailtasun handienetakoa beraien aniztasuna da, zein garaietan eman diren, norentzat, zein funtzio betetzen duten gizarte ezberdinetan eta abar. Etnomusikologian nagusitu diren azken joerek dokumentu hauek bere ingurunean aztertzea eskatzen dute, eta alderdi guzti hauek idatzita gordetzeko datu bilketarako fitxak eta sailkapen sistemak berriro definitzea beharrezkoa da. Soinuenearen lan taldeak Europan alor honetan dauden dokumentazio zentro garrantzitsuenekin harremana izan du eta beraiek erabiltzen dituzten sailkapen metodoen eta dokumentuen azterketa sakona egiten dihardu. Azken urteetan Soinuenearen lan taldeak definitutako datu egitura kontzeptu eta dokumentu berrientzat lekua izango duen multimedia gordailu aski malgu eta zabalgarrian burutzen ari da.

Ondare material eta immaterial guzti hau modu integral batean katalogatzen da eta bi alorrak elkarri loturik daude. Soinu-tresnak modu osoan erakusten dira, fitxak informazioarekin, argazkiekin eta hots laginekin osatuz. Hots laginak eta ikus entzutekoak gure ondare immaterialaren adierazgarri direnak sailkatzeko sistema bera erabiltzen da, bertan entzuten diren soinu-tresnak sailkatuz, doinuak, dantzak eta bestelakoak ere klasifikatuz, aztertuz...

Soinu-tresnen katalogazioari sekulako bultzada eman dio landa-lanean bildutako informazioaren hustuketak, izan ere gure iritziz soinu-tresna horien balio nagusia beraien erabilpenean dago. Herrialde bakoitzak soinu-tresna bakoitzari ematen dion berezotasuna eta partikularitasuna azaltzen da grabazio horietan, eta gertutasunagatik, gure inguruan ematen zaion erabilpena. Soinuenean jasota dugun landa-lana nagusiki Euskal Herrian egindakoa da eta bertako herritarrek musikaz egin duten baliapena azaltzeaz gain, musika hori egiteko zein soinu-tresna erabiltzen diren ere azalduko da. Grabazioen fitxan nor eta noiz ari den jartzeaz gain, besteak beste erabili diren soinu-tresnak zeintzuk diren ere zehaztuko da.

3.3. J.M.B.A. Bildumaren zabalkundea

J.M. Beltranek eta Soinueneak, Euskal Herrian herri musikak azken 50 urteetan izan duen bilakaera ezagutzera eman nahi dugu. Kultur arlo honetan parte hartu duten guztien memoriak, euskal herritarren altxorra den aldetik, beraientzat eskuragarri egon behar duela uste baitugu. Aldi berean munduan zehar bizi diren euskaldunek eta euskal kultura maite dutenek ere eskuragarri izango dute.

2018ko martxora arte katalogatutako dokumentu guztiak ikusteko bi aukera zeuden: Soinuenearen web orria eta EMSIME Eusko Jaurlaritzak Euskadiko museoek bildumak katalogatzeko sortu duen plataforma. Orain 3. aukera bat dago.

2015ean Soinuenea Fundazioak MIMOn (Musical Instrument Museums Online) parte hartzeko gonbita jaso zuen [<http://www.mimo-international.com/mimo/about-mimo.aspx>], bere funtsen inguruko informazioa Europako soinu-tresnen museorik garrantzitsuenen alboan aurkezteko. Gaur egun MIMO dugu bilduma publikoetako soinu-tresnei buruzko munduko sarbide libreko datu-baserik handiena eta zorionez gaur egun gure ondarea ere bertan dago kontsultagarri.

Ikuspuntu praktikoa batetik MIMOn parte hartzeak abantaila nabarmenik ez badakar ere, museoko funtsen zabalpenerako aukera berdingabea eskaintzen du. Soinueneako funtsak Pariseko Cité de la Musique edoartzelona Museu de la Música-ren ondoan azaltzea, nazioartean zabalpen nabarmena ekarriko luke. Guretzat pozgarria da ere, neurri handi batean MIMOko bilduma euskaraz kontsultagarri dagoela.

4. JUAN MARI BELTRAN: SORTZAILE ETA TRANSMISORE

Arestian aipatu dugu J.M. Beltranek, bere ekimenez lehenik eta Soinuenea Fundazioaren baitan beranduago, hamarkadetan burutu duen (eta egun oraindik

burutzen diharduen) ikerketa lan eskerga. Soinuenean jasota dagoen landa-lana eta dokumentu honen bukaeran eranskin modura ikusgai dagoen publikazioen zerrenda, biak haren ikerketa eta dibulgazio ahalegin nekaezinen erakusle dira, ezbairik gabe. Hala ere, ikertzaile alderdia J.M. Beltranen ekarpenaren zati bat besterik ez da. Jarraian laburbildu nahiko genituzke transmisioaren eta irakaskuntzaren arloan zein sorkuntzarenean (musikari modura) burutu dituen lanaren emaitzak.

Argia taldea utzi eta gero, Donostiako kontserbatorioan ikasketa arautuak burutu zituen J.M. Beltranek, eta era berean herri-musika tresna ugari menperatzeko (txalaparta, toberak, alboka, dultzaina, xirolarrua...) jole tradizional askorekin harremana egin zuen. Formazio aberats hau (formala zein informala) oinarri garrantzitsua izan da haren ondorengo ibilbidean.

Irakaskuntzari dagokionez, kalkulazina da hark egindako lana. 1985tik aurrera Hernaniko musika kontserbatorioan (gerora Musika eskola bihurtuko zena) txistua, dultzaina, txalaparta eta alboka irakasteaz arduratu zen. Izatez, Hernaniko harrobi hartatik igarotakoak dira gaur egun lehen lerroan dabiltzan hainbat musikari.

Didaktika arloan ere pauso nabarmenak eman ditu urtez urte: dultzaina, alboka eta txalapartarako ikas-metodo bana osatu du (ikus publikazioak), eta txalaparta joaldiak idazteko sistema ere berari zor diogu. Denborarekin bere ekarpenak beste hainbat eskolara zabaldu dira.

1987tik aurrera urtero Txalaparta Festa antolatu du Hernani Musika Eskolak, berau txalapartarien ezinbesteko erreferentzia eta topagune bilakatu delarik. Horrez gain, eskola honetako albokari taldeak 1994tik aurrera urtero Albokarien Hernaniko Topaketak antolatzen ditu. J.M. Beltran akuilu lanetan aritu zen bi ekimenetan, hasiera-hasieratik.

1999an Oiartzungo Herri-Musika Eskola ere abiatu zuen, eta zuzendari lanetan aritu da. Eskola honetan, besteak beste, xirolarrua, dultzaina, txistua eta danbolina, txalaparta, herri perkusioa, herri biolina eta musika lengoaia ikasteko aukera dago. Xirolarru (gaita/kornamusa) klaseak emateaz J.M. Beltran arduratu da berriki arte. Aipagarria da Euskal Herrian soinu-tresna hau modu arautuan ikasteko aukera bakarra hau dela gaurdanik, eta honetarako ikas-metodoa ere J.M. Beltranek berak sortua dela. Gipuzkoako, Nafarroako, Errioxako eta Donibane Lohitzuneko musikarien arteko dultzaina eta xirolarru topaketak ere antolatu ditu 1995etik aurrera.

Irakasle lanaz gain, hainbat herritan hitzaldi eta ikastaroak eman ditu, euskal soinu-tresnak orokorrean zein banaka (monografiko gisa) aurkeztuz.

Baina Beltran ezer badugu, lehenik eta behin musikaria dugu. Txistulari ikasketak burutu bazituen ere, benetan multi-instrumentista dugu: txistua, dultzaina, alboka, txalaparta, xirula eta ttunttuna, xirolarrua, arrabita, musukitarra...

Bere sormena hainbat taldetan bideratu du: Sustraiak taldearekin (1971-1974), ikuspegi didaktiko batekin; Txantxangorri txaranga (1973-1980); Azala (1979-1984) eta Txanbela folk taldeetan; Eltzegor taldearekin, Xabier Amurizaren taldearekin; Joxan Goikoetxea soinu-jolearekin; Astiasaran anaiekin; Errege Belda, Ixiar Jauregi, Ander

Barrenetxea eta Aitor Beltran musikari gazteekin; era guztietako formazioetan (dultzaina, alboka, txistu, gaita...), eta abar luze bat (xeheetasun gehiagorako ikus publikazioak).

Euskal Herrian zein atzerrian makina bat emanaldi eskaini ditu, izan jaialdi, kultur aste, festa, areto, omenaldi, konpartsa, diana edo beste.

J.M. Beltranen lanak ertz ugari dituela argi dago, baina guztia osotasun gisa ulertu beharra daukagu. Hark ikertu eta jasotakoa, modu naturalean baina berariaz eskoletan, ikastaroetan, hitzaldietan, publikazioetan zein musika jotzean besteei helarazten jardun du urte luzez. Atzerrirako bidaietan ere, kontzertuetatik irabazitakoa bilduma osatzera bideratzen zuen; ez du inoiz soinu-tresnak edo idatzizko zein ikus-entzunezko materialak eskuratzeko aukerarik galdu.

Lan honek behar bezalako eskertza merezi duela-eta, Gipuzkoako Ondare Sarirako hautagai modura proposatu nahi izan dugu.

II. ANEXO A

1967TIK 20017RA LANDA LANEAN GRABATUTAKOAK



SOINUENEA
Herri Musikaren Txokoa



AURKIBIDEA

1- 1967 ETA 1995 BITARTEAN. HERRI-MUSIKAREN TXOKOAN LANEAN HASI BITARTEAN	3
2- 1999 ETA 2011 BITARTEAN HERRI MUSIKAREN TXOKOAN	19
3- 2012 ETA 2017 BITARTEAN. SOINUENEA FUNDAZIOA	35

1- 1967 ETA 1995 BITARTEAN. HERRI-MUSIKAREN TXOKOAN LANEAN HASI BITARTEAN

Barkoxe, 1967: BARKOXEKO MASKARADA. Barkoxen 1967an zuzenean egindako grabaketa. Xirula Copain mauletarra. Atabalaria Pierre Ager Garat Arhane.


Usurbil, 1971: Paulo Sagarna eta Jose Sagardia Usurbilgo dultzaineroekin hauen errepertorioa grabatu zen.

Iribas, 1973: Juan Bautista Lasarteri txulubitari eta sunpriñuari buruzko informazio orokorra hartu zen. Sunpriñuak nola eta noiz egiten ziren, noiz jotzen ziren, soinu-tresna hau nortzuk jotzen zuten, non, zergatik eta zertarako... Haurren hots-jostailuak diren txulubitak nola egiten ziren, noiz, non eta nola jotzen ziren.



Iribas, 1973. Juan Bautista Lasarterekin txulubitak eta sunpriñuak egiten. (Arg. J. M. Beltran)

Iribas, 1974: Maiatzaren ilgoran Iribasera bidaia helburu batekin egin zen, ondo funtzionatzen zuten sunpriñuak egitea. Horrela, Iribasko Aitzarretako inguruan bildu ziren sunpriñuak egiteko behar ziren hurritz makilak. Martikoneako bordan jarri ziren tailerra eta grabatzeko estudioa. Bertan, makila bat hartu, azal zinta atera, sunpriñua egin eta hots ona ematen bazuen hiru lau joaldi grabatu eta beste bat egiten hasi, bukatu, grabatu...



Iribasko Aitzarreta aldean sunpriñuak egiten. (Arg. J.M. Beltran)

Egun horretako grabazio horiek izan dira geroago egin Juan Mari beltranek Euskal Herriko Soinu Tresnak proiektuaren diskoan eta bideoan erabilitakoak eta geroago ETBk egin dituen iragarki ospetsu horietako hasieran entzuten diren hotsak eta hain

ezagunak egin direnak. Negu Gorriak taldeak ere erabili zituen grabazio hauek 1991ean kaleratu zuen “Gure Jarrera” diskoko “Sarrera” izenburuko lehen kortean.



Iribas, 1974. Martikoneko bordan, bertan egindako sunpriñu berriekin joaldiak grabatzen. (Arg. J.M. Beltran)

Maule, 1974: Maule herrian urte horretan ospatutako Maskaradan jo ziren musikak eta kantuak grabatu ziren.

Luzaide, 1975: Bertan jotzen ari zen musika taldearekin Luzaideko Dantzetako errepertorioa grabatu ziren.

Iribas, 1976: Azal doinuak pelikula prestatzeko, Sunpriñu eta Txulubitari buruzko informazioa biltzen J. B. Lasarte, J. B. Iribarren eta M. Nogerarekin egindako elkarrizketak grabatu ziren.

1977. Iribas: Juan Bautista Lasarterekin jarraitu zen Larraungo herri ohitura zaharrei buruzko informazioa jasotzen. Artzainak eta sunpriñuak, haurrak eta txulubitak, Ingurutxo...



Iribas, 1977. Juan Bautista Lasarterekin bere etxe atarian. (Arg. J.M. Beltran)

Orduan osatu zen sunpriñu eta txulubitari buruzko informazio bilketa eta eskuratutako informazioarekin lehen idatzia argitaratu: *Azal doiñuak: Sunpriñu eta Txulubite* (1978). Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra, 29 zk. Institución Príncipe de Viana.



Iribas, 1977. Sunpriñuak egiten. (Arg. J.M. Beltran)

Donostia, 1977: Herri musika grabatze bilakaera horretan, tarteka, urrutira joan gabe urrutiko musikak grabatzen ziren. Horrela gertatu zen 1977an Donostian ospatutako “V. Festival internacional de folklore de San Sebastián”-era etorritako taldeekin.

Bertan herri eta kultura ezberdinetako musikak grabatu ziren:

Antillas, Grezia, Aragoi, Polonia, Kalifornia, Armenia, Portugal, Normandia, Tunez, Senegal, Italia eta Rumaniaiko taldeek parte hartu zuten. Halako jaialdiak munduko herri musikak eta soinu-tresnak ezagutzeko aukera onak izaten ziren eta hala dira orain ere.



Donostia, 1977. Armeniako duduak jolea (Arg. J.M. Beltran)

Iribas, 1978: Larraungo herri musikaren inguruko etengabeko lan horretan Juan Bautista Lasarteri Eguberritako kanta, Almute-dantza, Silla-dantza...

Idiazabal, 1979: Segurako Leon Telleria “Leon Txiki”-rekin elkarrizketa. Gizon atsegin honek informazio ugari eskaini zigun, bereziki eltzegorrari buruz. Berak behin baino gehiagotan erabili zuen bere gaztaroan, batzuetan animaliak uxatzeko eta ikaratzeko eta besteetan gizonak ikaratzeko bromak edo ganberrak gisa.

Kontatu bakarrik ez zuen egin, eltzegorrak ere egin zituen gure aurrean. Horrela, egiten eta jotzen batera erakutsi zigun.



Idiazabal, 1979. Leon Telleria “Leon txiki” eltzegorra jotzen. (Arg. JM Beltan)

Ordizia, 1979: Uztaileko 26an ospatu zuten “Santaneroak” ekitaldiaren dantzarako txistularien musika grabatu zen.

Donostia, 1979: Argia Euskal Dantza Taldeak Donostiako emanaldian jotako musika guztia grabatu zen.

Iribas, 1980: Martikoneako Periko Garaikoetxea itsuak “ezpainetako soinua”-rekin jotzen zekien herri dantza bilduma zabala grabatu zen. Fandangoak, jotak, martxak, pasodobleak, baltsak... Periko txikitatik hasi zen aho-soinua jotzen. Haur bat zelarik San Ferminetan bere osabak Iruñatik ekarritako aho-soinuarekin bere gisara, bakar bakarrik ikasi omen zuen. Iribasko festetan kontratatzen zituzten musika-joleek jotzen zuten guztia entzun eta berehala ikasten omen zuen. Berak ingurutxo eta silla dantza ere jotzen zuen.



Periko Martikoneako sukaldean ezpainetakoa jotzen. (Arg. J.M. Beltran)

Legazpi. 1980: Azkoitia-Martirietako Montte baserriko Jose Mari dultzaineroarekin elkarriketa eta dultzainarekin zuzenean eskainitako joaldiak grabatu zen. Hau izan da dultzaina jotzen ezagutu dugun gipuzkoar dultzainero onena. Jose Mari errepertorio aberatsa eta jotzen teknika eta trebetasun aparta zeukan. Berari hartutakoa “Dultzaina Gipuzkoan” liburuan idatzirik geratu da. Geroago Gipuzkoako beste dultzaineroei egindako grabazioekin batera Jose Mariri hartutakoa argitaratu nahiko genuke.

Iribas, 1980: Maiatzaren ilgoran Iribasen sunpriedua eta txulubidak egin eta egindako tresnekin egindako joaldiak grabatu ziren.

Azkoitia – Martirieta, 1980: Montte baserrian, Jose Sudupe, bere anai Jose Mari eta semea Manuel etxe horretako dultzaineroekin elkarrizketa eta joaldiak grabatu ziren. Montte izan da XX. mendean Gipuzkoako Dultzainaren erreferentzia nagusia. Bertan dultzainero onak izateaz gain, Jose dultzainagile aparta zen. Gipuzkoako modelo zaharrak berak egiten zituen, Nafarroako estiloan ere egiten zituen, metalezkoak, dultzainari gipuzkoar eta bereziki bizkaitarrentzat egiten zituen. Dultzainarako pitak egiten zituen eta bere anai Jose Mari ere bai. Bertan Monttetarren errepertorioa eta estiloan jotzen ikasi genuen.



Jose Sudupe eta Juan Mari Beltran. (Arg. J.M. Beltran)

Bedaio, 1980: Bedaioko txistulari ospetsua zen Jose Antonio Sarasolarekin elkarrizketa eta joaldiak grabatu genituen. Hau Bedaioko eta inguruko herrietako txistularia izan zen urte askotan eta errepertorio eta estilo berezkoa zeuzkan. Ingurutxoak berak jotzen zuen ere herrian eta inguruko herrietan.

Txistuari buruzko informazioaz gain bere etxean amak jotzen zuen tronpa (mosugitarra) soinu-tresnari buruz informazioa eman zigun.



Lesaka, 1980: Dionisio Mujika aita semeekin bertako txalaparta aldaera den “Toberak” izeneko joera eta ohiturari buruz informazio zabala grabatu genuen. Mujikatarrak izan ziren Lesakako jole zaharregandik lekukoa hartu eta garai horretan Lesakan eta Euskal Herrian “toberak” jotzen aritzen zirenak. Geroago, 1984an bikote honekin prestatu genuen “Euskal Herriko Soinu Tresnak” proiekturako “Toberak” zatia.

Baraibar, 1981: Zaldueneko Jose Perezi Ingurutxoari buruz, sunpriñuari buruz, eltzegorrari buruz eta bestelakoei buruz informazio ugari hartu genion. Eltzegorra erabiltzea debekaturik zegoela eta etxe horretan behorrak, zaldiak eta menditik soroetara jaisten ziren bestelako animaliak uxatzeko erabiltzen ziren karraka arruntek balio ez zutela eta eltzegorraren ordezeko beste tramankulu bat asmatu zuten. Kaxa handi bat lau mihiko karrakarekin eta jiratzen zuen karrakaren ardatzari lotutako ezkilak. Manibela eraginez, denek batera izugarritzko zarata ematen zuten, baina ez zeukan eltzegorraren eragin eta emaitza eta estreinatu eta handik gutxira baztertu zuten eta berriz ere ezkutuan eltzegorra erabiltzen zuten.



Baraibar, 1981. Zaldueneko Jose Perez karraka jotzen. (Arg. J.M. Beltran)

1981. Errazkin: Eraso-txiki baserriko Zelestino Artolari Ingurutxoari buruzko informazio orokorra, eguberritako kankak, aste santuko karrakak eta matrakari buruzko informazioa, eltzegorra, gaztainondo makil baten azala zintaz egindako “tronpeta”... Eta beste kontu askori buruzko informazioa jaso genion.



Eraso-txikiko Zelestino Artola, egindako “tronpeta” jotzen. 1981. (Arg. J.M. Beltran)

1981. Lasarte: Lasarteko Saustako Migel eta Pello Zuaznabar izan ziren gure gaztaroko txalapartari ezagunenak. Beraiek izan ziren gure maisuak eta beraiei ikasi genien dakigun gehiena. Txalaparta egiteko behar den materiala, makilak egiteko zer neurri, zur eta nola egin. Txalaparta nola jo, makilak nola hartu eta nola kolpatu ohola, ttakun ttan ttakun nola jo, txalaparta noiz eta non jotzen zen, zergatik eta zertarako jotzen zen, nortzuk jotzen zuten eta txalapartaren inguruko informazio zabala ikasi genien.



Saustako Migel Zuaznabar txalapartariarekin. 1981. (Arg. J.M. Beltran)

Donostia, 1981. Errenteriako Musikaste programazioan herri-musika emanaldia antolatu zen Donostiako Victoria Eugenia antzokian eta osoa grabatu genuen. Bertan euskal ordezkaria Benito Lertxundi izan zen eta kontzertu horretako beste zatian Claude Flagel Frantziako zarrabete jole ospetsuak jo zuen.

Arantza (Aranaz), 1982: Arantzako Inauterietako dantzei buruzko informazio orokorra eta bereziki bere musikarena jaso zen. Hurrengo urteko inauterietara joan ginen eta egun guztiko zuzeneko musika jaso genuen: dantzak, kalejirak, kantuak, bertsolariak...



Arantzako 1983ko inauterietan. (Arg. J.M. Beltran)

Peñíscola (Castellon), 1983: “Moros y cristianos” ikuskizuna eta festetako bestelako dantzak eta doinuak grabatu zen.

Astigarraga, 1983: Ramon Goikoetxearekin Astigarragako bere etxean grabatu genuen elkarrizketa luzea. Ramonek kontatu zigun txalaparta jotzen nola ikasi zuen, jotzen noiz hasi zen, non, noiz eta zertan jotzen zuten, txalaparta nola jotzen zen eta orokorrean berarentzat txalaparta zer zen. 1984an Erbetegi-Etxeberri baserrian “Euskal Herriko Soinu Tresnak” proiekturako txalapartaren atala prestatu genuen Asentsio eta Ramon Goikoetxea anaiekin. Bi anai hauek izan ziren Zuaznabartarrekin batera Euskal Herrian, eskualdez eskualde, txalaparta jotzen aritu ziren txalapartari beteranoak. Oso ondo ezagutzen zuten txalaparta, aitonari eta aitonaren anaiari ikasi omen zioten eta hamalau urtetako sagardoa egiteko auzolan bukaeran Erbetegi Etxeberriko tolarre aurrean egiten ziren gau-festa haietan txalaparta jotzen zuten.



Erbetegi-etxeberriko tolare aurrean, 1984. Ramon, Juan Mari Beltran eta Asentsio Goikoetxea. (Arg. J.M. Beltran)

Urrestilla, 1984: Auntxa eta Iturbide soinu-jole eta pandero-jole bikotearekin Auntxaren etxean elkarriketa grabatu genuen. Nola ikasi zuten, noiz hasi ziren jotzen, non eta noiz jotzen zuten... asko kontatu zuten.

Bedia, 1984: Juan Aiesta Bediako dultzaineroa. Hau izan da XX. mendeko Bizkaiko dultzaineroen arteko onenetakoa. Bizkaiko erromerietan aritzen zen dultzaina jotzen. Erromerietan jotzeagatik aurretik aguazilari ordaindu behar zion eta gero berak bere ondoan “korroak” osatzen zuenean mutilei saioko *“txakur txikerra eta geroago txakur handia”* kobratzen zuen. Oso errepertorio zabala eta aberatsa zuen eta jotzeko estilo berezia eta teknika aparta.



Bedia, 1984. Juan Aiesta dultzaineroa eta danborra A. Alonso. (Arg. J.M. Beltran)

Artea (Arratia), 1984: Leon Bilbao albokari ospetsuarekin elkarriketak. Leon Bilbao izan da albokari izan dugun erreferentzi nagusienetako bat. Berak erakutsi zigun alboka jotzen, alboka errepertorio eta jotzeko berak zeukan berezko estiloa. Alboka asko saldu bazizkigun ere, albokak egiten ere erakutsi zigun. Geroztik askotan ibili gara “Presalde” bere baserriko tailerrean eta sukaldean. Beti bere umore onarekin prest albokari buruz zekien guztia galdezka inguratzen ginenoi kontatzeko eta erakusteko. Elkartzen ginen batzuetan Leonekin Maurizia Aldeiturriaga bere pandero-jole bikotea izaten zen. Biekin hamaika kontu jaso genituen urte haietan. Bikote hau izan zen “Euskal Herriko Soinu Tresnak” proiektuan alboka – panderoa herri bikotea aurkeztu zuena.



Artea, 1984. Leon Bilbao alboka bat egiten. (Arg. J.M. Beltran)

Lakarri (Zuberoa), 1984: Chubuko etxeko Pierre Caubet txanbelariarekin. Aita Junes Cazenaveren laguntzarekin lortu genuen Pierre Caubet Lakarriko txanbelariarekin aurreneko bisita. Lehen egun horretan bere estilo berezian abestu zuen eta txanbela jo zuen. Grabatutakoa hori izan zen “Euskal Herriko Soinu Tresnak” proiektuan txanbela atalean sartu genuena.



Lakarri, 1984. J.M. Beltran, P. Caubet, A. Salaber eta J. Cazenave. (Arg. J.M. Beltran)

